

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

589. zkia.

XIV. urtea

2006ko urriaren 27a

Adur Juaristi, ehiztaria

**«Jende gazte gutxi
hasten da ehizean»**

- Azkarra
- Progresiboa
- Bermatua

FOTO

depilazioa

Arauri



INGLE
+
BESAPEAK
(Abenduak 15era arte)
100€



Depitotal®

www.depitotal.com

Arauri

San Bartolome, 6

Tel.: 943 74 17 89

kho@l

PUBLIZITATE artikulua
IRUDI korporatiboa
ENPRESA opariak



tel. 943 740 271 - 628 359 427 - ELGOIBAR
e-posta: khoel@khoel.net - web: www.khoel.net



SARE GURRUTXAGA

Igande arratsaldetako solasaldiak nahiko astunak izan ohi dituk normalean. Kas naranja eta pipa pakete baten aurrean askatzen diren hitzen bildumak dituk igande arratsaldetako hizketak sarritan.

Halere, noizean behin, etxera bidean analizatzen dituk alfonbrapetik astindutako hautsak.

Gaurkoan, etxe berria erosi duten lagun batzuekin jardun diat, eta ez dakik nolako lana iruditu zaidan sukaldean, azulejoak, altzariak, pareten kolorea etab aukeratzea. Pufff!!! Pentsamendu batez joan nauk etxera: "Zenbat bikote hautsiko ote dira etxe erosi berria atontzeko ahaleginetan!!"

Kasualitatez, etxera heldu eta Espainiako estatuan 3 minututik behin bikote bat banatzen dela entzun diat. Hara nolako portzentaiak, etxeen salmenta gori-gorian dagoen honetan!

Bromak aparte, izugarriak iruditzen zaizkidak zifra hoiak. Benetazkoak ote dituk? Euskaldunok ere portzentaje horretan mugituko al gaituk? Geroz eta intoleranteagoak omen gaituk. Berekiagoak ere, akaso. Ez omen diagu behar adina entzuten. Eta Aitzol, entzuten ez dakiena ez duk solaskide aproposa, ezta?

Gaur hiri tokatu zaik entzutea, niri kontatzea. Atseginez entzungo haut hurrengotan. Ea ba gu behintzat ez garen banatzen! Beste urte betean sikiera, ipurbeltz!

ZOZOAK BELEARI...



AITZOL GARMENDIA

Hortaz, urriko belekeria sorta hau idazten daramadan denboran zapuztu ditun beste hamar-hamabost bikoteren ilusio eta etorkizuneko planak.

Udaberri loretsu hartan trinko eta koloretu ziruditen zuhaitz lerdenei ailegatu zaien udazkena. Urteetako haize boladak tente jasanagatik, atzoko ekaitz bortitzak eraman ditin azken hosto marroiskak, enborraren mehea biluztuz.

Orain, sustraiak lur honetatik jaso eta beste lorategi batera, ur eta eguzki-printza goxo batzuren agerira, igarotako negua ahaztu eta udaberri berri baten itxaropenaren bila.

Konpromezu, konfidantza, tolerantzia, errespeto eta horrelakoak ez ziruditen gaur egungo lurren ezaugarri. Lur idor eta antzuak hauek, egarri ohi diren sustraidun pago bat loditze aldera.

Gizartean eredu ditugun totem mediatikoak ere sastraka bizkarroiak besterik ez ditun, traba eta oztopoak, garai hazi eta eder loratzeko.

Horrez gain, aipatu ezaugarriak ez zaizkidan inondik inora gaitasun *innato* eta berehalakoak iruditzen gehiengoan, irakatsi eta landu beharrekoak baizik. Ezinbesteko ongarria deforestazioaren aurka.

Egunero-egunero ondo ureztatutako harremanen hostoak ez ditun hain errez erortzen oster...

«Zenbat bikote
hautsiko ote
dira etxe berria
atontzen!»

SARE

«Ondo
ureztatutako
hostoak ez ditun
errez erortzen»

AITZOL



EZKONTZA PERRETXIKOAK BEZALAKOA DA. ONAK ALA TXARRAK DIREN
KONTURATU GANERERAKO BERANDU IZATEN DA



Wody Allen

Elgoibarko anbulatorioko ginekologia zertzuaren funtzionamendu eskasa dela-eta

Elgoibarko anbulatorioko ginekologia zertzuaren funtzionamendu eskasa dela-eta, horren inguruan idatzi ugari bidali ondoren, jaso dugun erantzun bakarra honakoa izan da: gure kexa Mendaroko ospitalean aurkeztu dutela, Elgoibarko ginekologia-zerbitzua Mendaroko ospitalearen ardurapean baitago. Hilabeteak joan hilabeteak etorri, ez dugu inolako erantzunik jaso, eta ginekologia-zerbitzuak lehen bezain gaizki edo lehen baino okerrago funtzionatzen du. Egia esan, aurtengo udan zerbitzua are eskasagoa izan da, emagina bajaran egon da eta. Eta lehen, larrialdiak artatzeko arduraren pertsona horrek bazuen ere, orain, ez dugu larrialdietako zerbitzurik ere izan.

Erabiltzaileen ezinegona gero eta handiagoa da. Ginekologoak azarorako premiazko zitologia egin behar duzula agindu arren, ezin dizute martxoaren aurretik txandarik eman; hori bai, txanda abuztuan eskatuta. Eta horretarako lekua egiten badute, zerbitzuaren kalitateari eraginda izango da. Egun asko igarotzen dira probak egin eta emaitzak ematen dituzten bitartean. Eta analisiak anbulatorioan egon arren, zerbitzua lepo dagoenez, denbora luzea igarotzen da, emaitzak jasotzeko txanda ematen duten bitartean. Hortaz, erantzunik ematen ez digutelako, eta zerbitzua gero eta txaragoa delako, gai hau, berriro ere, jendau-

rean salatu beharrean aurkitzen gara:

Erabat beharrezkoa eta premia handikoa da ginekologoaren kontsulta egunak gehitzea. Astean bi eguneko zerbitzua, zalantzarik gabe, gutxi da. Errebisioak astean bitan egiten dituzte, hain zuzen ere, eguerdiko 12:00etatik 13:30 bitartean. Egun eta ordu horiek daude jarrita Elgoibarko eta Mendaroko emakume guztiak azterketa guztiak egiteko. Lotsagarria da Erakundeetako arduradunek prebentzioaren beharraz hitz egitea, eta ondoren, otsailean txanda eskatu eta hori abendurako ematea. Beraz, honako hau eskatzen dugu: Ginekologia zerbitzua egun gehiagotan egon dadila martxan, horrela, eskabide guztiari aurre egin ahal izan diezaieten

Behin eta berriz, etenik gabeko Ginekologia zerbitzua eskatzen dugu. Hau da, ginekologoak, edozein arrazoi dela medio, zerbitzuan egoterik ez badu, bere lanpostua, berehala, beste profesionalen batek bete dezala. Emaginek artatu behar dituzte larrialdiak, baina ezin dute errezetarik egin; horretarako, normalean bezala, medikuaren baimena behar dute-eta. Baina hori horrela izanik, zergatik uzten dituzte zeregin horiek emaginen eskutan?

Eta, mesedez, gaiaren arduraren Mendaroko ospitaleak duela adierazteko idatzi bat bidali diguten emakume guztiari, Mendaroko ospitaleko erantzun diezagutela, alde batetik bestera ibili gabe.

Zerbitzua hain eskasa izanik, ezinezkoa da Elgoibarko anbulatorioan pre-

bentzio lana egitea. Era berean, lotsagarria da emakume elgoibartarrek jasan behar dituzten itzarote-zerrendak hain luzeak izatea; gainera, horrek izan dezakeen arriskua kontuan izanda. Eta mesedez, ez dugu nahi, beste hiru urte igaro ondoren, egoera hain negargarria izatea.

**BILUZIK SEXOLOGIA ZERBITZUA
HAIZEA EMAKUME TALDEA.
C. A., N. L. ETA B. S.**

Aski da!

Espainiar eta frantziar estatuen Espetxe Politika sadismo hutsa izatera iritsi da. Gure senide eta lagunek osatzen duten Euskal Preso Politikoko kolektiboak erasoaldi borritzak jasaten ditu. Kalerik behar luketen 160 senide eta lagunek bahituta eta bizi baldintza gogorretan jarraitzen dute eta hauen artean, preso gaixoak, 3/4ak eta zigorraldi osoak bete dituzten senideak ditugu.

Herritarra den Fernando Bert urriaren 15ean hasi zen gose greban, Frantziako Estatuak Espainiako polizien esku utziko duelako, honek suposatzen duen arriskuarekin: torturak...

Hau guztia egiten ari diren bi estatuak salatze eta "aski da!" esateko, herritar guztioi, hilabetero azken ostiralean Plazan egiten den elkarteratzera joateko hitzordua luzatzen dizuegu Etxerat-etik.

ETXERAT



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitate: 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasona Osoro, Itigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Urruzuno **INPRIMATEGIA** Geru **TRADA** 4.580 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• **Elgoibarren ez dago patinetearekin ibiltzeko lekurik:** "Gazte asko gara patinetearekin ibiltzen garenak eta Elgoibarren ez daukagu lekurik. Urasandin zegoen lekua kendu egin digute eta ez dute besterik ipini. Aldaparen bat edo patineteentzako parke berezi bat egitea eskatzen dugu. Herriko parkeren bat patinetearekin ibiltzeko egokitu daiteke, parke guztiak berdinak dira-eta!".

• **San Roke kalean belarra oso luze dago:** "Ez dakigu nori tokatzen zaion San Roke kale berriko belarra moztea. Lehenengo urtea denez, ez dakigu Udalaren eginbeharra den ala konstruktorearena, baina norbaitek moztu egin beharko luke. Ingurune guztia oso itsusi dago, eta hau ez da kale berri batek eduki behar duen itxura".

• **Santa Klara auzoko saskibaloia kantxa oso egoera txarrean dago:** "Elgoibarren ez daukagu saskibaloian jokatzeko toki askorik, eta nire ustez, dauden lekuak zaindu egin behar dira. Santa Klara auzoan dagoen saskibaloia kantxa oso egoera txarrean dago: kanastak apurtuta daude, lurreko marrak ez dira ikusten eta harri mordoak egoten da. Beste kirolgune batzuk zaintzen diren bezala, auzoetako kantxak ere modu onean mantendu behar dira, kirola egiteko azpiegitura egokiak edukitzea oso garrantzitsua da".



TXALOAK



• **Eskerrak eman nahi dizkiogu Udalari Melitongo autobus geltokian markesina bat jarri duelako:** "Bazen garaia! Azkenean jarri dute markesina Melitongo autobus geltokian. Gainera, oso polita da, egurrezkoa eta apurtzeko zaila. Lehen sekulako hotza pasatzen genuen autobusaren zain, eta euria egiten zuenean blai eginda geratzen ginen. Ea noiz egiten duten gauza bera Madalako autobus geltokietan, izan ere, Mendararako eta Eibarrerako norabideetan ez baitago markesinarik. Jende askok erabiltzen dituzte geltoki hauek, eta markesinak jartzea beharrezkoa dela iruditzen zaigu".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Sareko Zerbitzua



Gipuzkoako
Foru Aldundia





URRUZUNOREN Luma

Ezaguna

Ez zen pertsona bera. Arraro sentitzen zen. Kalean, eskaparate guztietan ikusten zuen bere irudia islatua baina, aurpegi haiek guztiak ezezagunak egiten zitzaizkion. Ez-atseginak, urrutikoak. Saiatu zen bere buruari sinestarazten baietz, ispiluaren aurrean zegoen pertsona hura bera zela, betikoa, baina, halere, negar egiteko gogoia zeukan. Triste zegoen, indarririk gabe. Eta galleta kaxa hartu zuen, erretratuak atera zituen eta berak oroitzen zuen aurpegia bilatzen hasi zen. Bila eta bila, argazki bat eta bi eta hamaika erretratu ikusi zituen. Eta guztiak erakutsi zioten bere aurpegia. Bere izatea, bere izaera. Fotografi haietako bat hartuta bainugelara joan zen, ispilu aurrean jarri eta begira begira jarri zen, zer topatuko zain. Deus. Ezer ez. Ezagun bat zeukan aurrez aurre begira, ezezagun goibel bat. Eta egun hartan ilea-paindegiak madarikatu zituen, eta zin egin zion bere buruari ez zuela sekula ilea berriz moztuko, pelukeroek arima lapurtzen dute-eta.

Jasone Osoro

[ZORTZIKO TXIKIAN]



JUAN LUIS GARATE

HIRULAN
INFORMATIKA

Aukeran, PCa edo macintosh?

Ahal balitz, PC a Linuxarekin.

Ordenagailuaren zein funtzio izatea gura zenuke?

Memoria.

Zenbatean behin aldatu beharko genituzke ordenagailuak?

Etxean pertsona gazteak badaude, 3-4 urtetik behin aldatzen dira, erabilpen gehienak, jokuen munduarekin lotuak baitaude. Lantokietan, aldiz, 6-8 urte iraun ohi dute.

Informatikaren munduko azken berrikuntza?

Wi-Fi ren ordeztuko WiMax- a. Honek, kostu txikiekin eta eremu handietan, interneterako sarbide publikoa nahiko zabala izatea ahalbidetuko du.

Zetarako erabiltzen duzu Internet?

Berriak jaso, informazioa lortu eta jendearekin harremanak mantentzeko.

Birusen aurkako erremedio eraginkorra?

Prebentzioa eta "antivirus" bat beharrezkoa da.

Zer sentitzen duzu pantailan mezu berri bat duzunean?

Jakinmina.

Imajinatzen al duzu makinek gizakia menpean hartuko duten etorkizun bat?

Ez, ez dut uste.

komikia

Hil da gero...



Emakume bat etorri da bere senarraz galdezka. Esan duenez, belatokian siesta botatzen ari zen eta ez omen du gehiago ikusi.

Betaurrekodun bizarduna baldin bada, dagoeneko, lurrazpitik 2 metrora dago.



Kokoe 075

[AKORDATZEN NAIZ]



ANTONIO BERASALUZE

1932an jaioa

«Gaztetako gaixotasuna»

Gaztetan danetik euki dot. Mutil koskorretan sano-sanua nitzan, baiña bederlatzi urtekin gaixotu egin nitzan. Eztarriko haragi faltsu batzuen ondorioz, infekzio bat sartu jatan odolian, eta hazurretan geratu zan. *Osteomyelitis* izena daka gaixotasun honek. Beste batzuri igual jotzen dio bihotzera edo giltzurrunera.

Gauzak asko konplikau ziran, uste dot medikuak hankasartze bat euki zebela nerekin. Bederlatzi urtekin hanka bixak, tibia bixak, gaixotuta geratu jatazen. He-

mezortzi urtera arte oso gaizki pasau naban, penizilinia Elgoibarrera etorri zan arte; 1948-xan uste dot etorri zala. 9 urtekin 18ra arteko denpora gehixena ohian pasau naban. Garesti eta gitxi zaguan, baiña lortu ziran nik bihar nittuanak, eta sendatu nitzan.

Bueno, gaixua ondiokan hor dakat, eta hazurrak ez dira ondo hazi. Gaur egun ere oso zaila da sendatzia. Horrekin bizi naiz. Ilbidiak beti neurtu egin bihar; ezin naiz asko ibilli, eta miña eukitzen dot. Hala ere, ahal doteneraño zeozer egittia gusatzten jata: ez naiz geldi egotekua.



[GURE BERBAK]

Kontzesiozko esaldixak (1)

Kontzesiozko esaldixetan, esaldi nagusixan esaten dana gertatzeko zailtasunen bat edo arazoren bat planteatzen da; hala ere, beti gertatzen da esaldi nagusixan aittatzen dana.

Konparazio baterako, esaldi hau: *Gaixorik egon arren, mendira juan da Patxi*. Gaixorik dago, baiña, hala ere, juan da mendira. Holako esaldixak egituratzeko, menderagaillu edo forma bat baiño gehixago erabiltzen dittugu Elgoibarren. Gatozen gaur, hasteko, aditz-partizipiua eskatzen daban batekin:

NAHIZ TA (DA) ... -TU

Bai, baiña orduan pasatzen da batzuk dirala Elgoibarkuak eta bestiak Eibarkuak, nahiz da hamen bizi.

Illia ere oiñ daukaten baiño txikixagua. Hobeto arreglauta; nahiz ta lepua mehia euki; illia kenduta behintzat.

Eske, batzuk esaten debe San Rokekuak euren artian egitten debela era batera eta San Lorentzokuak, nahiz da antzerakua izen, beste era batera egitten debela.

Hartu makiña, ra-ra! Bedarra ebagitzera. Konfiantziakin. Nahiz da bittartian igual eurixak harrapau.

Jesus Mari Makazaga



**CORDON
VILARCHAO**

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zoluan kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra

San Roke, 7 behea
Pel. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 modulua
Tel. 943 740 570

GRUPO
RYAEMM



karkizano

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



Arieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

«Ez da batere erraza zeure burua pantailaren aurrean ikustea»

Ainere Tolosa 27 urteko aktorea dugu. Sortzez zizurkildarra da, baina, Zarautzen bizi da. Gaur egun, ETB 1 eko "Wazemank" saioan dihardu larunbatero, antzezle lanetan, Alkain eta gainerako aktoreekin batera. Horrez gain, Ixabeli bizia eman dio, "Kutsidazu Bidea Ixabel" film berrian.



- **Noiz eta nola hasi zinen antzerkiaren munduan?**

Betidanik gustoko izan dut antzerkiaren mundua. Txikitatik eskolan antzerkia egiteko aukera izan nuen eta beranduago, Zizurkilen sortu zen antzerki talde batean hasi nintzen 8 - 9 urte nituela. Gero, taldea desagertu zenean, kuadrilan, hasi ginen gure artean antzerki lantxoak egiten. "Kaxkagor" kultur elkar-atea ere, eratu genuen eta ondoren, Donostian antzerkia ikasi nuen hiru urtez. Hemen nengoela lanean hasi nintzen.

- **"Wazemank" umore saioa baino lehenago, zer nolako lanetan aritu zara?**

Gorringo taldearekin, bi udatan kale antzerkia burutu nuen. Hurrei zuzendutako pare bat antzezlanetan parte hartzeaz gain; Txirri, Mirri eta Txirribiton pailazoekin ere, lanean aritu izan naiz. Baita, "Kutsidazu bidea Ixabel" antzerki lanean ere. Orain artean, aktore komiko gisa jardun dut.

- **"Wazemank" bezalako umore saio batek eduki beharreko osagaiak zeintzuk dira?**

Aktore lana, lanbide gisa eta profesionaltasunaz hartzeaz gain, uneoro, aintzat eduki behar da, umorea egiten ari zarela eta honenbestez, gogotsu jardun behar duzu eta pertsonai bakoitzaren paperean murgildu behar zara. Honez gain, atzean, lan talde handi bat dago: gidolariak, kamarak... Guztien lanak eta ahaleginak bere fruituak ematen ditu.

- **"Wazemank"eko zein pertsonaiekin geldituko zinateke?**

Ez nintzateke pertsonai jakin batekin ere geratuko. Alderantziz, guztiekin geratuko nintzateke.

- **Astean zenbat ordu ematen dituzue grabaketa lanetan?**

Astelehenetik ostiralera grabatzen dugu, ostegunetan izan ezik. Astelehen eta astearteetan

platoz kanpoko eszenak grabatzen ditugu Miramonetik at, eta hala egokitzen zaigunean, hau da, gure pertsonaiaren grabaketak, platotik kanpo grabatzea eskatzen duen aldietan. Ordutegia, goizeko 08:00etan hasi eta arratsaldeko 17:30-18:00ak arte luzatzen da. Osterantzean, asteazkenetan Miramonen grabatzen dugu, eguerdian hasi eta gaueko 22:00ak bitartean. Azkenik, ostiraletan, 11:00etatik 20:00ak arte.

• **“Kutsidazu bidea Ixabel” antzerki lanak, erantzun ezinhobea izan zuen publikoaren aldetik; estreinatu berri den filmeak zer nolako harrera eduki du orain artean?**

Hilabete igaro da filmea Donostiako Kursalean estreinatu zenetik, eta egia esan, balantzea ona izan da. Izan ere, aurikuspenen arabera, 30.000 bat ikusle espero ziren eta pasa den astean plazaraturiko emaitzek erakusten dutenez, 38.000 pertsona inguruk dagoeneko, ikusi dute filma. Nik nahi nuena, behintzat, gauzak desberdintzea zen, hau da, hiru lan ezberdin direla argi geratzea; alde batetik, liburua dugu, bestetik antzerkia eta azkenik, filma. Nik uste dut, funtsean, hori lotu dela. Jendeak ez du alderaketak egiteko margen handiegirik izango.

• **Antzerkiarekin alderatuz, berritasunik aurkituko al dugu filmean?**

Bai. Kasu honetan, filmeak, istorioa, leku eta espazio zehatz batera eramateko aukera eskaintzen du. Filmean istorioak, dimentsio handiagoa bereganatzen du; antzerkian ez bezala, non, denbora eta espazioak murriztagoak diren. Narrazioa, testuinguru batean gertatzen da eta, beraz, giro soziopolitiko eta kulturalak presentzia dute kontaktetan. Modu berean, pertsonaia bakoitzaren izaera eta nortasuna hobeto eta sakonago ezagutzeko aukera ematen du filmeak. Istorioaren hariak berbera izaten jarraitzen duen arren, (euskara ikasteko asmoz, baserri batera jotzen den euskaldun berri baten pasadizoa), narrazioak, bestelako bideak ere jorratuko ditu. Orohar, filmearen kontakizunak bestelako eritimo bat du; oraingoan, askoz ere lasaiagoa.

• **Aukeran, antzerkia ala zinema?**

Bi gauza desberdin dira. Ni antzerkiarekin geratuko nintzatekeela uste dut. Az-



«Antzerkiak asko betetzen nau aktore bezala»

ken finean, zuzeneko delako eta interpretatzea atsegin baduzu, zirrara ugariagoak sentitzen dituzu. Antzerkiak berehalakotasun handiagoa du. Gauzak momentuan egin eta inprobisatzen dira. Hiitz urritan, asko betetzen zaitu aktore bezala. Zinean, berriz, dena askoz pausatua da. Filmea grabatzen bukatu eta gutxienez, urtebete itxaron behar duzu, azken emaitza ikusi arte. Niretzat, hauxe izan da estreinakoz parte hartu dudana pelikula eta itxaron behar horrek asko urduritu nau. Dena den, behin filmea ikusita; lan eta saiakera guztiak merezi izan duela ohartzen zara. Oso esperientzia polita izan da.

• **Nola ikusten duzu zeure burua pantailaren aurrean?**

Egia esan, gaizki. Ez da batere erraza zeure burua pantaila handiaren aurrean ikustea. Sekula gaintutako ez dudana sentimendua dela iruditzen zait. Horrez gain,

telebistan agertzen naizen bakoitzean, beti oso estu jartzen naiz. Ez dakit egunen batean neure burua lasai ikusi ahal izan-godudan. Dena den, sarritan komentatu izan dugu, geure artean, eta gauza ohikoa da.

• **Etorkizunera begirako asmoak?**

Ez diot geroari erreparatzen. Egunean, eguneko bizi dut. Izugarriko zortea dut momentu hauetan. Baina, aktore lanetan inoiz ez dakizu, etorkizun batean non egongo zaren. Horregatik, garrantzitsua da, hankak lur gainean edukitzea.

• **Zer eskaini dizu aktore lanbideak?**

Nik nahi dudana horretan jardutea. Asetua sentitzen naiz. Funtsean, lanera joatea, ez dut obligazio bezala sentitzen. Disfrutatut egiten dut lan honekin. Gainera, lanbide honetan, jende ona eta jatorra ezagutzeko aukera izan dut, eta horrek ere, asko laguntzen du.

[PROTAGONISTA]



Elur**Arrieta**

Elur Arrieta perkusio joleak Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin egin du debuta aste honetan. Astelehenan egin zuen estreinaldia Donostiako Kursaal aretoan, eta aste osoan zehar aritu da Euskal Herriko hiriburuetan kontzertuak ematen. Euskadiko Orkestrak 4 perkusionista ditu, baina piezaren arabera, kolaboratzaileak behar dituzte. Horietako bat izan da Elur aste honetan: "aurrera begira berriro deitzea gustatuko litzaidake". Bost urtez aritu da Elur Euskadiko Gazte Orkestran, Arima Beltza musika taldeko partaide ere bada, eta Goi Mailako Perkusio ikasketen 3. maila egiten ari da.

[NOTIZIA]

Elgoibarren.net atari digitala jarri du martxan Elgoibarko Izarrak

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak www.elgoibarren.net atari digitala, jarri du martxan, Udala eta IMHren laguntzarekin. Elgoibarko orainkaria izatea da atari honen helburua, hau da, albisteak gertatu ahala kontatzea. Elgoibartarrek, beraz, uneoro eta edozein tokitatik herriko albisteak jasotzeko aukera izango dute. Atari dinamikoa eta horizontala da. Egunero bi edo hiru albiste berri emango dira, eta irakurleek beraien iritzia eman edo informazioa gehitzeko aukera izango dute.



Lau atal nagusi

Atari digital honetan lau atal nagusi bereizten dira. Albisteak: kronologikoki ordenatuta azalduko dira eta erabiltzaileek euren iritzia eman ahal dute. Agenda: El-

goibarren dauden ekitaldiak agertuko dira, eta norberak gehitu ditzake ekitaldiak. BARREN PDFan: asteroko alea ikusteko aukera eskaintzen da. Mediateka: argazki eta bideo bilduma da.

[ZENBAKIA]

80

80 ikaslerekin hasi du IMHko Ingeniaritza Eskolak ikasturte berria. Eskola eta enpresen arteko txandakatze sistemari eman zaio aurten ere garrantzia, eta proiektu honen atzean 70 enpresa daude. Duela 11 urte sortu zen IMHko Ingenieria Eskola. Orduetik 250 ingeniari formatu dira eta 200 enpresak hartu dute parte.

asteko [ARGAZKIA]



Odola emategatik omendutako elgoibartarrak ikus ditzakegu argazki honetan. Domekan izan zuten omenaldi ekitaldia Arraten eta bakoitzak bere insignia eta diploma jaso zituen. Ignacio Garate eta Karmelo Loiola 50 aldiz odola emategatik saritu zituzten. Marisol Arakistain, Maria Jesus Gabilondo eta Consuelo Prietok odola 40 aldiz eman dute eta gainontzekoek 25 aldiz. Odola ematea bizia ematea da eta gizartea honekin kontzientziatu dadin, Odol Emateen Elkarteak herritarrak saritzen ditu.

Euskaraz garatutako praktikei buruzko 30+10 mintegia izan zen atzo IMHn



Makina Erreminta arloko enpresen erantzukizun soziala, euskara baliabideak eta praktika onak batzen dituen 30+10 mintegia aurkeztu zuten atzo, hilak 26, IMHn. Makina Erremintaren sektorean diharduten enpresengana hurbildu eta euskaraz garatutako praktika onak, zerbitzuak, makinak eta tresnak; egun merkatuak eskaintzen dituen aukerak ezagutaraztea da mintegi honen helburua. Lan-mundua euskalduntzeko interesatuei, sektoreko enpresa eta Lanbide Heziketako Ikas-texeei zuzenduta dago.

Etxepe, Danobat eta Kondia

Partehartzaile ezagun eta garrantzitsuak bildu ziren atzo IMHko mintegian. Eusko Jauriaritzako sailburuordea, Migel Anjel Mugika Elgoibarko alkateordea eta AFMko zuzendariak hartu zuten parte, besteak beste. Elgoibar eta inguruetako enpresa eta erakunde bakoitzak bere esperientziari buruz hitz egin zuen, eta azkenik, 30+10 Mintegiarri amaiera emateko Etxepe, Danobat eta Kondia enpresei omenaldi txiki bat egin zitzaizen, euskar eta enpresa uztartzeko egin duten lan garrantzitsuagatik.

[MOTZ-MOTZIAN]

Jokoarekin arazoak dituztenentzako lokala

Jokalaria Anonimoen Elkarteko "Egun bat" taldeak jokoarekin arazoak dituzten pertsonentzako eta hauen senideentzako lokala ireki du Elgoibarraren. Bilerak astearte arratsaldetan izango dira, 18:30etik aurrera. "Egun bat" izena jarri diote, helburua egun bat jokatu gabe egotea delako, egunero egun bat gehiago. Ludopatia gaixotasun kroniko eta sendaezina da, eta gaixoez gain, senideek jasaten dute honen eragina. Hareei laguntzea da talde honen helburua. Dena anonimotasunean egingo da. Interesatuek 657710756 telefonora deitu dezakete.

Emaztea erasotzeagatik atxilotu zuten gizonezko bat

Emaztea mehatxatu eta erasotzeagatik 32 urteko gizonezko bat atxilotu zuten joan zen domekan. Herri-zaingo Sailak jakinarazi zuenez, arratsaldeko 15:00etan iritsi zen gizona etxera, eta emazteak bien arteko harremana bertan behera uztea nahi zuela adierazi zionean, sukaldako labana batekin mehatxatu eta etxe guztiatik jarraitu zion. Kanean zegoela atxilotu zuten gizonezkoa. Genero Indarkeria leporatzen diote.

Merkatu Plazako zozketa

60 euroko hiru txeke banatu dituzte Merkatu Plazako saltzaileek. Martin Garagarza, Maria Jesus Alberdi eta Marta izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jasoko dute.



Fernando Bert presoari elkartasuna adierazteko ekitaldiak aste guztian zehar luzatuko dira



Frantziako Gobernuak Espainiako mugan kanporatuko du Fernando Bert datoren azaroaren 8an, eta Espainiako poliziaren esku gera daiteke. Hori salatzeko, gose greban dago euskal presoak. Elgoibarko Amnistiaren Elkartek hainbat ekintza burutu ditu Bert-i elkartasuna adierazteko. Besteak beste, giza katea, enkarteladak eta prentsaurrekoa egin dira. Bihar, zapatua, Bert-entzako mezu bilketa egingo da goizez Plaza Handian, azaroaren 1ean enkartelada egingo da 19:00etan eta datorren barixakuan manifestazioa eta akanpada-baraualdia egingo dira.

EGUNEKO ZENTROA

Urriaren 16tik martxan da Mendaroko Eguneko Zentroa

Joan zen otsailaren 9an inauguratu zen Eguneko Zentroa, eta astelehen honetan, hilaren 16an, jarri dute martxan. Helburua, etxeko nagusiei behar duten atentzia eskaintzea da. Askok, beraien familiarekin bizi arren, behar terapeutiko eta soziokulturalak dauzkate, eta Eguneko Zentroan emango zaizkie. Besteak beste, Azpilgoetako elizara eramango dituzte nagusiak mezetara, beraien arteko harremanak hobetzen lagunduko zaie eta norberaren autonomia indartzen saiatuko dira. Lau lagunekin ireki ditu atek Mendaroko Eguneko Zentroak. Guztira, 15 pertso-

nentzako lekua dauka. 300m² ditu lokalak, eta etorkizunean beharrezkoa balitz, handitzeko aukera eskaintzen du. Honetaz gain, tutore espezializatuen ardurapean beste 6 apartamentu egokitu dira herrian, nagusiak bertan bizi daitezten. Eguneko Zentroaren ardurua Mendaroko bi emakumek hartu dute: Maria Luisa Fernandez eta Nuria Ansuategi.

Astelehenetik ostiralera

Mendaroko Eguneko Zentroa astelehenetik ostiralera egongo da irekita, goizeko 9:30etik arratsaldeko 17:30era.



Mintzalaguna egitasmoa

Aurreko urteetan bezala, aurten ere "Mintzalaguna" ekimena antolatu du "In Leike" Euskara Taldeak. Bere helburua Mendaron euskaldun berri eta euskara ikasleei euskara praktikatzeko gune bat eskaintzea da, astean behin kafetegi batean elkartu eta ordubetez elkarrekin euskaraz hitz eginez. Deialdia irekia da eta mendaroar guztiak parte hartzerantz animatu nahi dituzte antolatzaileek, euskaldun zaharra izan ala euskaldun berria.

Parte hartu nahi dutenek, edo informazio gehiago jaso nahi izanez gero, telefono honetara deitu daiteke: 605754017 (Haritz)

Mendaroko bost odol emaile omendu dituzte

Joan zen domekan ospatu zen Arraten Debabarrena eta Debagoienako Odol Emaileen Batzar Orokorra. Bertan Mendaroko bost bizilagun omendu zituzten, odola ematen egindako lanagatik. Mari Luz Goiburu, Kristina Salegi, Jose Ignacio Esmoris eta Mauricio Mayorak zilarrezko intsignia jaso zuten, 25 aldiz odola eman izanagatik. Bestalde, Juliana Arakistainek urrezko intsignia jaso zuen, odola 40 aldiz eman duelako.

Amaia Urria Gipuzkoako txapeldunorde Ehiza Xehean



Urriaren 8an jokatu zen Zanbranan Gipuzkoako Ehiza Xeha txapelketa. Guztira 53 ehiztarik hartu zuten parte, junior, senior, beterano eta emakumezkoen kategorian, eta azken honetan, Amaia Urria mendararra bigarren postuan sailkatu zen, bi eper eta faisai batekin.

Kilimon Zahar Elkarteko Oskar Goikoetxeak ere hartu zuen parte senior kategorian, eta honek eper bat ehizatzea lortu zuen.



Handitzen, handitzen...

"Handitzen handitzen, hasi naiz handitzen..." esaten du haur kanta ezagun batek. Badirudi Mendarok abestutako kantua dela, izan ere, azkenaldian izugarri handitu da herria. Etxebizitza berri mordoak eraiki dituzte, eta oraindik gehiago eraikiko dira, industrigune garrantzitsuak egin dituzte eta enpresa mordoak jarri dira bertan, kirol gune berria eraikiko da... dagoneko anaia txikia handi bilakatu da.





JUAN ANTONIO SOTO

Korrikalaria

«Atletismotik bizitzea zaila da oso eta gutxi dira estatuan hortik bizi direnak»

Juan Antonio Soto, mendararra, duela lau urte murgildu zen atletismoaren munduan. Gaur egun, Oñatiko Auñamendi klubeko partaide da eta denboraldi bikaina egiten dihardu. Duela, hiru aste, Soraluze eta Bergara bitarteko krossean, aurreneko postua eskuratu zuen beteteranoen mailan, eta 5. postua sailkapen orokorrean, 33:15 denborari esker.

Zenbat denbora daramazu atletismoaren munduan?

Serioski lau urte. Gaztaroan, denboraldi batean korrikalari izan nintzen. Baina 18 urte bete ondoren, utzi egin nuen kirol hau, igeltsero lanetan hasteko eta 36 urterekin heldu nion ostera ere, atletismoari.

Nolatan hasi zinen lasterketetan parte hartzen?

Noizbehinka korrika egitera atera ohi nintzen. Baina, adiskide baten bidez, ekin nion, lasterketetan parte hartzeari. Roberto Osoro izan zen apur bat engainatu ninduen. Horrela, Azpeitian urtero ospatzen den San Silvestre eguneko lasterketan parte hartu nuen estreinakoz, urriko egun batean.

Zein izan da oraindaino lortu duzun markarik hobereana?

Maratoi erdian, 1:13ko denbora dut. laz, Behobia-Donostia Krossean, berriz, 1:08:26 denbora erdietsi nuen; sailkapen orokorrean 45. postua neureganatuz. Aurten, ez dut Behobiarik egingo, Santanderrin korrika egiteko gonbitea jaso baitugu nik eta klubeko nire adiskideek. Denboraldirik hoberenari dagokionez, aipatu, orain dela bi urte burutu nuela. Garai hartan, Donostiako 20 km tako lasterketan 12. postua eskuratu nuen, 50:56 ko kronoa egin ondoren. 10 kmtako ibilbidea, berriz, 32:50 ean bukatu nuen. Pasa den urtean,

aldiz, motelago ibili nintzen, zenbait lesio eta bestelako arrazoiren ondorioz, prestaketarako denbora gutxiago eduki bainuen. Aurten, berriro ere, sasoi onean aurkitzen naizela esan dezaket.

Zenbat ordu entrenatzen duzu egunean? Asteazkenean, sei egunetan entrenatzen dut. Batez beste, 13 km egiten ditut egunean, hau da, pare bat orduz aritzen naiz.

Zure zein gaitasun nabarmenduko zenuke korrikalari moduan?

10 - 21 km bitarteko karreretan dudana fondona edo iraupena.

Zein da zure jomuga atleta gisa?

Momentuz, Santanderreko krossa prestatzen dihardut. Agian, aurrera begira, beteterano mailako Espainiar Kross Txapelketara aurkeztuko naiz. Orohar, aurten, krossak prestatzean zentratuko naiz. Mugerza, Azkoitia - Azpeitia, besteak beste. Ildo beretik jarraituz, egunen batean, maratoia probatzea gustatuko litzaidake. Horretarako, ordea, denbora gehiago edukitzea beharrezkoa da, nik, une hauetan, ez dudana.

Nola ikusten duzu atletismoa?

Korrikalari onak daude, baina, oso zaila da, hemen atletismotik bizitzea. Atleta bezala, Iker Mayora mendararra, asko miresten dut. Osterantzean, Juan Carlos de la Osa eta Txema Martinez ditut gustoko.



«Maratoi batean parte hartzea nahiko nuke noizbait»



www.elgoibarren.net atari digitala jarri du martxan Elgoibarko Izarra Elkarteak

Ba al daukazu notiziak Internet bidez jaso edo irakurtzeko ohiturarik?

M^a ISABEL GORRITI
Etxekoandrea
66 urte



“Ez. Internet munduak berandu harrapatu nau. Badaude nagusientzako ikastaroak, baina nik nahiago dut igerian egitera joatea. Etxekoek erabiltzen dute internet.”

MARIVI MAROTO
Etxekoandrea
38 urte



“Ez. Ez daukat interneten ibiltzeko denborarik. Mundu interresgarria iruditzen zait, eta denbora apur bat hartzen badut, ekingo diot internet ikasteari.”

ALBERTO FERNANDEZ
Tailerreko langilea
31 urte



“Ez. Etxean ez daukat internetik Lanean ibiltzen naiz apur bat, baina ez daukat ohitura handiegirik. Nahiago dut egunkaria irakurri edo telebista ikustea.”

ION BELAUSTEGI
Ikaslea
15 urte



“Ez. Internet beste gauza batzutarako erabiltzen dut, baina albisteak jasotzeko nahiago dut telebista, irratia edo prentsa. Ez daukat albisteak interneten irakurtzeko ohiturarik.”

[BAI ala EZ?]

Egokia iruditzen al zaizu Iban Zubiaurreri jarri dioten kalte-ordaina?

BAI %58

“Bai. Merkatuan zeukan balioa ordaintzarekin nahikoa da. Ez dakit hainbeste balio ote zuen ere! Realak eskatzen zuena gehiegizkoa iruditzen zait.”

EZ %42

“Ez, nire ustez 30 milioi euro ordaindu beharko lituzke. Realarekin zeukan kontratua hautsi egin zuen, eta hori ez da zuzena. Athletic-en laguntzaz, klausula guztia ordaindu beharko luke.”

Datorren asterako.... Azaroaren 1ean Santu Guztien Eguna izango da.

Santu Guztien Egunean kanposantura joateko ohiturarik ba al duzu?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 ¢ + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu

Gabi jatetxean.

Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

Dekorazio

gehigarri berezia

gehigarria

Etxe berria erosteak dakarren poza, etxe hori jantzi eta dekoratzeak sortzen duen urduritasunarekin nahasten da askotan. Nola margotuko dut logela? Zein altzari jarriko ditut egongelan? Eta sukaldea? Zelako baldosak jarriko ditut komunean?... Mila galdera etortzen zaizkigu burura, eta erantzunok faltan. Etxea oso garrantzitsua da gizakiarentzat, bertan pasatzen baitugu gure bizitzeko parte handi bat. Dekorazio gehigarri honetan emango dizkizugu zure etxea janzteko giltzak, eta bide batez, zure zalantzak argitzeko nora jo dezakezun azalduko dizugu. Norberak egitea polita da, baina adituen aholkuak jarraitzea oso garrantzitsua da. Pausoz pauso, bakoitzaren etxea norbere gustura, pertsonalitatez eta erosotasunez dekoratzeko argibideak aurkituko dituzu gehigarri honetan.

Sartu barrura!



etxeApainduz

DEKORAZIO GEHIGARRIA

Espazioa aurrezteko moduak

Gaur egungo etxeak ez dira lehengoak modukoak, gero eta txikiagoak egiten dituzte. Ondorioz, espazioa ondo aprobetxatu behar da, premiazko elementuak aukeratu eta soberan dagoena kendu. Hemen dauzkazu espazioa aurrezteko hainbat aholku.

Sukalde ordenatua

Egunerokotasunean pentsatuz antolatu sukaldea; funtzionaltasuna eta segurtasuna helburutzat hartuz. Harraska, sukaldea, sukalde-gainekoa eta hozkailua dira gunerik erabilienak. Lekurik altuenak eta sabaia aprobetxatu, Zartaginak eta kazuelak elementu dekoratzaile bihur daitezke.

Pasabideak eta gune osagarriak

Etxe txikietan premiazkoa da eskaileren azpian, pasabideetan edo sarreran geratzen diren espazio hutsei erabilpena ematea. Armairu-arropa, ardandegi txiki bat, liburutegitxo edo estudio gune bat aukera ezin hobeak izan daitezke gisa honetako lekuei erabilpena eta itxura pixka bat emateko.

Logela eta biltegia

Logelako gunerik altuenetan, sabaitik 15-20 zentimetrotara, jarri ditzakegun apal edo baldei esker, biltegi lanak egingo dituen gunea sortu dezakegu. Jantziagoa gera dadin, telaz estali edo saskiak erabili daitezke. Ohearen behealdea, berriz, primerakoa da arropa edo gonbidatuentzako ohea (koltxoia edo futoia) gordetzeko. Gau mahaiak ere biltegi moduan erabiltzeko saski edo kaxa batzuekin ordezkatu ditzakegu.



Bainugela azken milimetrora arte planifikatu

Espazioa aurrezteko konketaren azpian gorde gauzak, apal edo sukaldean erabiltzen diren gisako karrotxo batzuen laguntzaz. Bainugela edo dutxako bazterretan apalak edo saskiak jarri eta higieneko artikulua gorde bertan.

ETXEKIT Luis F. Beristain
xey SUKALDERAKO ALTZARIAK
12 urteko bermea
banatzaile ofiziala
Arrillaga z/g - Elgoibar Tel. 943 74 43 47

Lombok
• Opariak
• Dekorazioa
• Altzariak
Errosario, 30 behea - Tel. 943 53 10 68

Sofa Urola
Sofa, koltxoi eta deskantsurako sistematan aukera zabala
Tel. y Fax: 943 85 30 20
San Juan auzunea, 19 - Edif. Axiri - 20720 AZKOITIA

GC ISOLAMENDUAK
glas control
Olaso 27 - 47. pabiloia
943 743 094



nu-van

bernardo ezenarro 17 tel.:9 43 74 7414

proiektu eta altzariak



- Proiektuak
- Erreformak
- Konfekzioa
- Altzariak
- Gremioen Koordinaketa

bi
gan

diseinua

Julio Urkijo 26

Azkoitia

Tel. 943 85 03 78

Fax 943 85 03 79

bigan@wanadoo.es

Margotu ezazu **etxea kolorez**, ausart zaitez!



Kolore ilunek tristura sortzen dutela esan ohi da. Gure etxean, pozik, kalai eta gustura egotea da garrantzitsuena. Eman kolorea etxeari, kolore biziak, ausartak erabili etxeko hormak margotzeko. Ausart zaitez!

Beltza; personala eta dotoreena

Pintura beltz geruza bakarrarekin goitik behera alda dezakegu etxearen itxura, eta ohikotik aldentzen den koloreen batekin konbinatzen badugu, emaitza, zoragarria izan daiteke. Beltza, giro serio eta minimalistetan neurritz erabiliz gero, etxe baten dekorazioa hobekien jantzen duen kolorea izan daiteke.

Grisa; etxeko txikienezako

Lehen begiratuan ulertzea kosta daitekeen arren, erabaki zuzenena da. Ume eta gazteen logelak biziak eta distiratsuak izaten direnez, grisa moduko kolore neutro bat ezin aproposagoa da. Altzari, jostailu eta osagarriei protagonismorik kendu gabe, primerakoa da atsedean hartu edo ikasteko beharrezkoa den giro atsegina eta epela sortzeko.

Laranja, pizgarria eta zerbait gehiago

Laranja edo melokotoi koloreak erabiliz giro atsegina lortuko dugu, eta horiarekin, berriz, giro ilunak argitu,

umore ona areagotzen baitu horiak. Laranjek, betiere adituen berbetan, lotsa galtzen lagunduko digu. Hori bai, sukalde edo jantokitik aldendu, gorriarekin batera bizkorrago, presaka, jatera bultzatzen gaituzte koloreok-eta.

Gorria, adrenalina xahutzeko

Kolore dekoratzailea eta pizgarria; tentu handiz erabiltzea komeni da. Ezin egokiagoa jantoki handi eta pasabideetan erabiltzeko, baita giro oso klasikoetarako ere, betiere, zuriarekin batera erabiltzen badugu. Guztiz txuria den logelari ukitu berezia emateko eta kontrastea sortzeko ere aparta da



Eskatu AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE!

- Fatxadaren erreabilitazioa
- Apaintzeko pintura
- Pareta lisoak
- Parket flotatzailea
- Pintura orokorrean

GEHIENKO BERMEA AKABERA ETA GARBIKETAN!
www.biokdekorazioa.com



Santa Klara, 26 behea ezkerrean Tel.: 943 74 15 52 606 43 11 19 606 43 11 20



www.aome.es

proiektu eta erreformak

639 403 457 / 605 773 720
San Juan, 9 Eibar




disart
diseinu estudioa

- DEKORAZIO AHOLKULARITZA
- PLANO TEKNIKOAK
- BEZEROAREN AURREKONTUARI EGOKITUTAKO PROIEKTUAK
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ALTZARIAK

Pedro Muguruza Etorbidea 5 Elgoibar
Tel/fax: 943 743245
disart@disartestudio.net
www.disartestudio.net





BIENA AROZTEGIA

Ermuaranbide, 16
943 743 116

GARCIA AROZTEGIA

P. Muguruza, 30
943 743 238



A. MARKEZ IGELTSERITZA

Urasandi, 24
943 743 418

E. ARANDIA

Urasandi, 17
605 705 204



ARAMAR ELEKTRIZITATEA

Morkaiko, 1
943 741 280

URZELAI ELEKTRIZITATEA

Santa Ana, 12-14
943 741 376



ONGI ITURGINTZA

Olaso poligonoa, 15-68 pabiloia
943 74 28 80

PAGOAGA ITURGINTZA

San Antolin, 13
943 740 279



BIGARA ERREFORMAK

San Frantzisko, 11-5
696 95 27 95
696 95 27 96

IMAR AROZTEGIA

Olaso, 15 - 55 pabiloia A1
943 531 471
646 905 564
609 054 978

LODOSO AROZTEGIA


Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabiloia 3. zenb.
943 743 490

SORALUZE AROZTEGIA

Santa Ana, 8
943 743 634

ULAZIA AROZTEGIA

Santa Klara, 10
943 740 547



GLAS CONTROL ISOLAMENDUAK

Olaso 27, 47 pabiloia
943 743 094



IPINTZA PINTURAK

Foruen Enparantza, 4
943 740 440
607 740 440

P.P. BERISTAIN

Xixilion 2, 3 sotoa
943 743 652

PAGOERROTA ITURGINTZA

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44
659 33 43 23

TELLABIDE ITURGINTZA

Azpilgoeta, 19 Mendaro
943 755 062
607 755 062

ZALDUA ITURGINTZA

Urasandi, 26
943 740 530

ZUBIZARRETA INSTALAZIOAK

Ubitarte, 5 behea
943 740 789
650 586 144

ESTUDIOS ARRILLAGA

Errosario, 15 behea - ELGOIBAR
943 744 055 / 943 744 019
Arragueta, 12 behea - EIBAR
943 200 698

BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 26 behea
943 741 552
606 431 119-20

CORDON VILLARCHAO

San Roke, 7
943 742 874

ETXEKIT

Arrillaga z/g
943 744 347

Sukalde perfektua diseinatzeko gakoak

Ez da Argiñano izan behar sukaldearen garrantziaz ohartzeko. Sukaldea lanerako gunea da, eta lana erosotasunez egitea komeni da. Horretarako, sukaldea logikaz eta buruarekin diseinatu behar dugu.

Lanerako tokia

3 lan gunere bereizten dira sukaldean: prestaketa, sukaldatze eta garbiketarako gunek. Elkarren ondoan egon behar dute, esker-eskuin espazio libreak utziz. Altxariak, L, U, paraleloan edo lerro bakarrean koka ditzakegu, daukagun espazioaren arabera. Halere, perimetroak ez du sekula 6 metrotik gorakoa izan behar.



Espazio irekiak, topaleku apartak

Familia batzeko tokia izan da betidanik sukaldea. Jateaz gain, beste mila gauzatarako erabiltzen da etxeko txoko garrantzitsu hau. Azkenaldian, gainera, lagun eta ezagunak etxera gonbidatzeko joera gero eta zabalduagoari esker, premiazkoa bihurtu da espazioa handitzea. Horrela, sukaldeak metro karratuak irabazi eta egongelara ere barneratu du.



Material berriak

Apurto ezarritakoarekin eta sukalde orijinala lortzera iritsiko zara. Egurrak errege izaten jarraitzen du, berotasun eta noblezia sentazioei lotuta baitago. Diseinu berrietan egur motarik preziatuenak astigarra, haritza, gereziandoa eta intxaurrendoa dira. Sukaldeko paretetan, berriz, pintura plastikoaren, pintatutako paperaren, harriaren eta material naturalen aldeko apustua egiteko garaia da.



**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

**PROIEKTUAK
eta
ERREFORMAK**

Errosario 15. ELGOIBAR
Tel. 943 74 40 19

Arragueta 12. EIBAR
Tel. 943 20 06 98



Friondo

altzariak

Santa Ana, 4-6 20870 ELGOIBAR TLF.: 943 74 12 34



ESKAINTZA BEREZIA

ELECTRIC 2006 SOMIERRA
+
LATEX 2000 KOLTZOIA
(90 X 190 X 15 zm)

NEURRI GUZTIAK

799 €

Giro bakoitzak bere argiztapena



Argi halogenoak ala lanpara bat? Zer jarriko dut egongelan? Eta logelan? Galdera asko egin behar dira etxeko argiztapena ondo aukeratzeko. Gune bakoitzak bere argiztapena dauka, propioa, berezia. Etxea iluna bada, argi gehiago beharko du, eta alde-rantziz, oso argitsua bada, ez hainbeste. Oso modan daude zutik jartzeko lanparak, zuzeneko argia ematen ez dutenak. Hala ere, bakoitzak bere gustua dauka eta horren arabera aukeratu du bere etxeko argiztapena. Jarraian emango dizkizugu zure etxeko guneak argitzeko hainbat aholku.

Logelarako argi lasaia

Argi nagusia ez da sabaian kokatu behar, ohean etzatean moles-tatu egiten du-eta. Hobe da aplikeak, zutik jartzeko lanparak, fokoak edo argi ez-zuzenak erabiltzea. Ohe

ondoan argiren bat jartzea komeni da, ganean irakurtzeko ohitura dutentzat, batez ere. Armairu barruan argia jartzeak, jantziak bilatzea erraztuko digu.

Komunean argi asko

Argi halogenoak dira komunerako irtenbiderik onena. Argitasun handia ematen dute, eta toki gutxi behar dute gainera. Ispiluaren alboetan foko batzuk jartzea oso ondo etortzen da bizarra kendu edo makilatzeo.

Egongela, argiztatzeko gunerik zailena

Hormetara zuzendutako argi zehaztugabeek egongelaren ikusmira orokorra emango digute. Mahai gaineko lanparak giro goxoa emango dio tertulia guneari. Zutikako lanparak oso egokiak dira irakurketa gunerako.

URZELAI

Elektrizitatea
Argiztapena



Santa Ana, 12-14 • Tel.: 943 74 13 76 / 608 77 40 32



LODOSO LEIHOAK

Zure neurria egindako lana



- PVCa
- ALUMINIO TERMIKOA
- EGURRA
- ALUMINIOA
- POLIURETANO A

Sigmako industrialdea, Xixilion, 2 - 2. pabiloia 3 zenbakia

Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12

Koltxoia aukeratzean kontuan eduki beharrekoa

Gaur egun ondo lo egitea jatea bezain garrantzitsua da. Estresak gaixotasun mordoa sortzen ditu, eta gaizki deskantsatzeak dakar estresa, askotan. Koltxoia izan daiteke etxeko elementurik garrantzitsuena. Egutero 8 ordu pasako ditugu bertan, eta egokia izatea ezinbestekoa da. Koltxoia aukeratzeko jarraitu beharreko pausuak aurkituko dituzu jarraian.

Koltxoi gogorra ala biguna?

Pertsona bakoitzaren lo egiteko posturak baldintzatzen du koltxoiaren aukeraketa. Adituen esanetan, albo batera lo egiten dutenek koltxoi biguna nahiago dute eta gora begira lo egiten dutenek, berriz, koltxoi gogorra. Ahuspez lo egiten dutenentzat, koltxoi gogorrena gomendatzen dute.

Urrezko arauak

10 urtean behin koltxoia aldatu egin behar da. Koltxoiaren elementu



elastikoak eman egiten du gorputzaren pisuarekin, eta denboraren poderioz, ez du gorputza ondo eusten. Bestalde, hiru hilean behin koltxoiari buelta ematea komeni da, goitik behera aldatu eta burutik oinetara biratzea ere oso egokia da.

Koltxoi mota

Latex koltxoia milioika zulotxo txikiz osatutako materialez egina dago. Honi esker, gure gorputza erabat moldatzen da koltxoira eta gainera transpiratu egiten du. Hautsa eta zikinkerari aurre egiteko oso egokiak dira.



LÁTEX



Élite plus Produktuaren aurkezpenagatik **eskaintza berezia!**



1'35 x 1'90

754 €

Neurri guztiak digutu!

OSASUN ZIURTAGIRIA

Oeko-tex standar 100

clase 1



Garraio gastuak doan. Berria eramatean zaharra doan jasoko dizugu.

LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com

[GOMENDIOA]

Lo egitearen garrantzia

Britainia Handiko Bristol Unibertsitateak egindako ikerketa baten arabera, lo egitea oso garrantzitsua da. Diotenez, lo gutxi egitearen ondorio garbi bat loditasuna da. Ume eta gazteek berandura arte esna egoteko ohitura aldatu egin behar dute, adin hauetan loditasun arazoa areagotzen ari da azken urteotan, eta lo gutxi egitearekin lotuta dago.

Sahad Taheri ikerlariak argitaratu duenez, haur eta gazteen logeletan ordenagailua, telebista edo telefonoa jartzea debekatuta egon beharko litzateke, aparailu hauek ez baitute ondo lo egiten uzten. Ikerlari honen esanetan, loaldi la-



burrak metabolismo aldatketa, diabetesa eta bihotzeko gaixotasunak areagotzen ditu. Ikerlan honetan azaltzen denez, 30 hilabeteko ume batek ez badu ondo deskantsatzen, 7 urterekin loditasun arazoak izango ditu.

Era berean, nerabezaroan dauden gazteentzat ere, ondo lo egitea oso garrantzitsua da, hazten dauden etapa horretan lo gutxi egiteak kalte handiak eragin ditzake-eta.

Nekatuta esnatzeak kirol edo ariketa gutxiago egitea dakar, eta osasunarentzat kirola egitea ezinbestekoa da.

Asteburuetan, astean zehar baino bi edo hiru ordu gehiago lo egitea komeni dela gaineratzen du ikerlari britainiarrak, askoz gehiago lo egitea ere ez baita egokia.

Beraz, gauza guztiak bezala, lo ere tamainan egin behar da, ez gehiegi eta ez gutxiegi.

[OSASUN GIDA]



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

("Dieta erraza" Mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Erosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etxeko zerbitzua eskeintzen da.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (15:00-21:00)

Jausoro, 6 behea

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Erosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

lotsaGABE

Iosu Unanue 16 urte

Bizitza honetan sekula ahaztuko ez duzuna?
Paris, Belgika eta Holandara egindako ikasbidaia.

Musuak jaso ala eman?

Biak, musuak eman eta jasotzea elkarrekin doaz.

Zein famatu azaltzen da zure fantasietan?

Anna Kournikova.

Berarekin ligatu ezkutuan ala denek jakin dezatela?
Denek jakin dezatela!

Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe?
Aukeratzekotan, maitasuna sexurik gabe.

Zenbat aldiz imajinatu duzu zure lehenengo aldia?

Askotan, denok fantaseatzen dugu lehenengo aldiarekin.

Neska izan nahi zenuke, zertarako?

Ez dut neska izan nahi, ez daukate abantailarik.

Ikustezina bazina, zein tokitan sartuko zinateke?
Irakaslearen azterketen karpetan.

Maitemindu al zara inoiz?

Bai.

Sexuaz asko al dakizu?

Baietz uste dut, informazio asko daukagu eskura.

Noren azalean bizi nahi zenuke egun batez?
Ronaldiño, bere egun bateko soldatarekin konformatzen naiz.

Elgoibarko alkatea bazina zer egingo zenuke?
Gazteentzako ekintza gehiago antolatatu.

Eta Lehendakaria bazina?
Ez dakit, politika ez zait interesatzen.

Gizonak eta emakumeak berdinak al dira?
Desberdintasunak daude oraindik, baina gero eta gutxiago.

Ezkonduta ala elkarrekin bizi?
Berdin zait, oraindik ez dut horretan pentsatu.

Aita izan nahi al duzu?

Ez, nahiago dut txakurtxo bat edukitzea.





biluzik

sexologia txokoa

Eider Goiburu [Sexologoa]

Fantasiak

Fantasiak doakoak dira. Denok gara fantasien jabe, eta beharrezkoak dira gainera. Momentu pertsonala eta intimoa da. Zein da zure fantasia?

Hotz dago, baina nik bero dut. Hor zaude niri begira, baina zure desioa ez kutatu nahian. Ezin duzu, harrapatu zaitut!

Nire begiradek gorritzen zaituzte nire berotasuna zure aurpegian igarriz. Hala-kor batean begirada eusten didazu eta zure ezti koloreko begiak nire begi handietatik kendu gabe gerturutzen zara. Orain ni naiz gorritu naizena eta zure berotasuna bameratzen dut.

Nire parean zaude, zentrimeto gutxi batzutura, zein ederra zaren ile luze horrekin... zure eskuak nire aurpegia laztantzen du, poliki, emeki...

- Jone egin dituzu etxeko lanak?
- Zer?
- Berriro ametsetan? Ingeleseko klasean gaude!

Ametzak, fantasiak, zein ederrak diren... guk nahi bezain ederrak, guk aukeratzen di-

tugu lekuak, pertsonak, keinuak, mugimenduak, hitzak... gu gara pertsonai nagusiak, edo ez, maitatzen gaituzte edo gorrotatzen gaituzte, desiratzen gaituzte edo desiratzen dugu. Zergatik uko egin guk asmatutako mundu perfektuari? Errealitatea baino askoz ere hobea da, ingelesa baino askoz hobea da. Beriz ere, nire fantasian sartzen naiz. Non gindoazen? Ah bai! Zure eskua nire aurpegia laztanduz, poliki, emeki...



BEKAK

HEZKUNTZAKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZAKO, DOKUMENTAZIOKO ETA INFORMATIKAKO PRESTAKUNTZARAKO BEKAK

Hezkuntza eta Kultura Ministerioak antolatuta. Ikasketak 2002. urtean edo geroago amaituak izan behar dute. 12 hilabeteko iraupena du, 2007ko urtarrilaren 1etik abenduaren 25era. 42 beka eskainiko dira, Ikerketa eta Dokumentazioko Zentroan (CIDE) dokumentazioan eta informatikan espezialistak prestatzeko helburuarekin. Eskaerak egiteko epea azaroaren 9an amaituko da.

LEHIAKETAK

25. BIZENTA MOGEL IPUIN LEHIAKETA

Azkoitiko Udalak antolatu du 18 urtetik gorakoentzat. Euskarazko lan orijinalak izan behar dira, gutxienez 4 orri eta gehienez 10. Lehen saria: 500 euro eta orogarria, 2. saria: 330 euro eta orogarria, 3. saria: 200, euro eta orogarria Informazio gehiago 943857170 telefonoan.

INSTRUMENTU TALDEEN VI. "ELGOIBARKO HERRIA" LEHIAKETARAKO KARTEL LEHIAKETA

Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatuta. Kartelean ondoko testua jarriko da: Instrumentu Taldeen VI Lehiaketa "ELGOIBARKO HERRIA" VI Concurso Conjunto Instrumental. Martxoak 10 2007 10 Marzo. Lanak entregatzeko epea azaroak 8. 300 euroko saria. Informazioa: 943 742145.

IKASTAROAK

MUNDUKO SUKALDARITZA IKASTAROA TOLOSAN

Tolosako Udalak eta Gazte Topaguneak antolatu dute 13 urtetik gorakoentzat. Azaroaren 2tik 2007ko urtarrilaren 25era Tolosako Ero-Etxe Elkartearen. Izena ematea urriak 31ra arte. Informazioa 943670383 telefonoan.

GIZARTE TREBETASUNEI ETA KOMUNIKAZIOARI BURUZKO IKASTAROA

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako ikastaro hau azaroaren 6,7,8, 9 eta 10ean izango da, Azpeitian, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Komunikazioa eta gizarte-trebetasunen erabilera, ezagutza eta entrenamendua, adierazpenean eta enpatian oinarritutako giza harreman egokien eraginkortasun handi baterako baliabide gisa. Ikastaroa doan da. Informazio gehiago 943 474182 edo 665718695 telefonoetan.

LANA

HIZKUNTZETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARI LAN POLTSA NAFARROAN

Nafarroako Gobernua Hizkuntzetako teknikarien lan poltsa osatu nahi du. Frantses Filologiako edo Ingeles Filologiako lizentziatuta edo titulu baliokidea behar da. Informazioa 948 427100 telefonoan.

DONOSTIAKO KIROL UDAL PATRONATURAKO KIROL INSTALAZIOETAKO ARDURADUNA

Merezimendu eta azterketa bidezko lehiaketa librerako deialdia. Epea: 2006-11-6. Informazioa 943 481850.

OFIZIAL IGELTSEROEN LAN POLTSA BERGARAN

Bergarako Udalak Obra eta Zerbitzueta-ko Brigadarako ofizial igeltseroen lan-poltsa osatzeko lehiaketa-oposizioa ireki ditu. 18 urte izatea, Eskola graduatua edo parekoa den titulazio maila izatea, 1. Hizkuntza Eskakizuna izatea, eta B2 motako gida-baimena eskatzen da. Informazioa: 943 779100.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.

e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es

943 741 461



Asteartetik ostiralera

16:00-19:00

KOKOE KOMIKI LEHIAKETA

Iñigo Ansola Elgoibarko XI. komiki lehiaketako garaile

Oragan den ostiralean, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, urtero legez, Elgoibarko Kokoe komiki lehiaketako sari banaketa egin zen Kultur Etxean.

Laredon bizi den euskal jatorriko kantabriar honek, Elgoibarko XI. Kokoe komiki lehiaketako lehendabiziko saria eta honi zegozkion 500 eurotako ordain saria poltsikoratu zituen, *Solamente una Bala* lanari esker. Honakoa, Iñigoren bigarren garaipena dugu, izan ere, 2004. urteko edizioan ere, bera suertatu zen txapeladun. Bigarren saria, bestalde, Valladolid aldera joan da, Jesus Maria Aguadorentzat, hain zuzen ere, *La pulsación número 323* komikiari esker. Azkenik, hirugarren postua, nafar batek bereganatu du, Laida Muruzabalek, *Bestaldean* lanarekin.

Aurtengoan, guztira, hemeretzi komiki aurkeztu dira eta txapelketaren arduradu-



nek adierazi dutenez, espainiar estatuko hainbat lekutatik ere jaso dituzte lanak. Hala nola, Sevilla, Valladolid edo Kantabriatik. Aspaldiko partez, bi elgoibartar ere animatu dira lehiaketa honetan esku hart-

zera. Lan guztiak erakusgai egon dira Kultur Etxean astean zehar, gaur arte. Horrez gain, Kokoe, 2003, 2004 eta 2005eko edizioetan saritutako lanekin osatutako fanzinea kaleratu du.

Euskal Dantzen ikastaroa

Aurten ere, Haritz Euskal Dantza Taldeak eta Inazio Bereziartua Musika Eskolak, euskal dantzen ikastaroa antolatu dute. Ikastaroan, trikixak, iauziak eta orohar, plazako dantzak, irakatsiko dira. Bi maila egingo dira aurkezten diren pertsonen artean. Batetik, hasiberriek, astelehenetik asteazkenera izango dituzte klaseak 21:30etik 22:30era Musika Eskolan. Edota, astearte eta ostegunetan 21:30etik 22:30era, Merkatu Plazan. Lehen dantzan ibilitakoentzat, ostera, ostirala izango da entsegu eguna, 19:30etik 21:00etara Musika Eskolan. Printzipioz, ikastaroa, urriaren 23an hasi zen eta abendura arte luzatuko da. Gero, taldearen aukeran geratuko da Aste Santura arte jarraitu ala ez. Izena emateko epea, berriaz, urriaren 20ra arte irekia egon da, baina, oraindik ere izena eman daiteke. Bukatzeko esan, arduradunek jendea anima dadin eskatzen dutela.

“Hitzak egin gaitu ezer” bertsolaritza erakusketa



Bihartik hasi eta azaroaren hamabira arte, bertsolaritza erakusketa egongo da ikus eta entzungai Kultur Etxean. Euskal Herriko Bertsolari elkarteak, bertsorik gabeko Euskal Herria hipotesia hartu zuen abiapuntutzat, erakusketa hau antolatzeko garaian. Erakusketak bertsolariak eta bertsolaritza izango ditu protagonista. Edukiak berriaz, lau multzotan sailkatuak egongo dira: transmisioa, tresnak, gaiak eta publizitatea. Gainera, jolas interaktiboak izango dira. Baita, bertsoa eta eskultura uztartzen dituen filme laburra, eta bertsoak bideratzeko elementu osagarrien erakusketa. Modu berean, ikastetxeetako irakasleentzako material didaktikoa banatuko da, bertsotik abiatuta, hainbat eskolagai lantzeko aukera eskaintzen dutenak. Orduetgia astelehenetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara eta igande zein jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.



www.elgoiBARREN.net

- [•] **ALBISTEAK:** Bi edo hiru notizia, egunero.
- [•] **AGENDA:** Herriko agenda, norberak osatzeko aukerarekin.
- [•] **MEDIATEKA:** Erretratuak eta bideoak ikusgai: jaiak, irteerak, kirolak, ...
- [•] **BARREN astekaria** ordenagailuan ikusi eta irakurtzeko aukera.

ADUR JUARISTI EHIZTARIA

«Perretxikozaleek moduan oilagorretarako lekurik onenak isilpean gordetzen ditugu»



Ehiztariak guztien ahotan daude urriaren 12an ehiza debekualdia altxatu zenetik. Ehiztari gazte batengana jo dugu oraingoan. Ez edonolakoa. Adur Juaristik (16 urte) junior mailako Euskadiko Ehiza Xebe Txapelketan parte hartuko baitu azaroaren 19an, Zanbranan (Arabán).

► Gipuzkoako 4. postua hobetzeko itxaropenik ba al duzu?

Beti hobetu daiteke, baina zortea ere beharrezkoa da ehizan. Gerta daiteke aukeratzeko duzun zonaldean txoririk ez egotea eta orduan alperrik da ahale-gintzea. Horrez gain, junior mailan aritzen garen ehiztari artean parekotasun handia dago. Egun txar edo on batek erabaki dezake txapeladuna. Egungo txapeladuna gipuzkoarra da, eta diotenez, gure probintzian dago ehiztari mailarik onena. Ikusiko dugu. Halere, ehiza egun on bat pasatzea da helburu nagusia, Euskadiko Txapelketarako sailkatzen naizen estreinako aldia da-eta.

► Zure lorpenik handiena al da?

Halaxe da. Duela 2 urte hasi nintzen txapelketetan parte hartzen, gutxieneko adina 14 urte baitira. Junior mailan 14tik 18 urte bitarteko ehiztariak sartzen dira.

► Ez al zara gazteegia ehizarako?

Ehizan aritzeko gutxieneko adina ere 14 urtetan ezarrita dago. Ehiztari kameta 14 urterekin ateratu daiteke. Dena den, 18 urte bete arte aitarekin ehizara joatera behar izan nau legeak. Ehizan aritzea guztiz naturala izan da niretzat. Txiki-txikitik eduki ditut txakurrak etxean eta aita umetatik laguntzen dut ehizara.

► Ehiztari gazte asko al zaudete?

Gero eta gazte gutxiago hasten dira ehizan. Batezbesteko adina 30 urtetik gorakoa delakoan nago. Gainera, gu

moduan txapelketetan edo eperretan, oso gutxi ibiltzen dira. Gehienak baseri ondoan, uso pasean, e.a ibiltzen dira. Txakurrarekin ehizan ibiltzea gogorragoa; esker txarragokoa ere izan daiteke zenbaitetan.

► Ehizatze toki apropos bat?

Oilagorretarako pinudi zulo on bat. Perretxiko zaleek moduan oilagorretarako lekurik onenak isilpean gordetzen ditugu, ordea. Alabaina, denok leku berdinetan batzen bukatzen dugu.

► Zergatik ehizatu, Adur?

Gogoko dudalako txakurrekin mendian ibiltzea eta txoriak topatzean satisfazio handia ematen dit. Ehizako unerik gorenena txakurrak zerbait antzeman eta geldi geratzen denekoa da. Orduan egon behar du adi ehiztariak, ez daki-zu-eta nondik joko duen.

► Zein dira eskopeteroak?

Eskopeteroak definitzeko bere modua edukiko du bakoitzak. Niretzat toki finko batean, postu batean, geldirik geratzen direnak dira eskopeteroak. Ehizatze modu bat da, bai, baina niri ez zait gustatzen. Ehizak izan dezakeen fama txarra eskopetero askori zor dio. Gero, komunikabideetan gehien agertzen direnak dira. Aldiz, oilagor bat ehizatze goiz mordo pinudi artean oinez pasa dituen gutxiago agertzen da. Askoz pieza gutxiago ehizatzen ditugu guk eta bat ehizatzean sentitzen den poza ere halakoxea da.

«Oilagor bat ehizatze goiz mordo pinudi artean»

ESKUBALOIA

Mendibil, Agirregomezkorta eta Aja eskubaloi jokalariek euskal selekziora



Sanlo EKTko 3 jokalariek deitu ditu Euskadiko eskubaloi selekzioak: bi mutil eta neska bat. Batetik, Danel Mendibil eta Sergio Agirregomezkorta elgoibartarrak deitu ditu euskal selekzio haurtzatzaileak. Hauek, Tecnomeca kadete mutilen taldean jokatzen dute. Bestalde, Miren Aja, Elgoibarraren jokatzen duen emuarrak, jubenil maila-

ko Euskadiko selekzioarekin jokatzen deitu dute. Mirenek Sanlo klubean egin ditu azken 3 urteak eta aurten Cometel taldean jokatzen ari da. Sanlo klubetik adierazi digutenez, "ohore bat da jokalariek elgoibartarrak selekzioetik deituak izatea. Honez gain, eskubaloi elgoibartarraren mailaren adierazgarri ere bada, nolabait".



Mendi eta ardo artean Morkaikorekin

Izikiko Parke Naturala eta Labastidako ardanegiak piska bat hobeto ezagutzen dituztela itzuli ziren etxera, Morkaiko Mendizale Elkartearen azken irteeran parte hartu zuten 40 lagunek. Lau bat orduko mendi ibilbide ederra egin ostean Labastidan (Arabar errioxa) dagoen Zaldibar ardanegian bazkaldu zuten. Morkaikoren hurrengo irteera Dorleta, Andarto eta Araotz artean egingo duten mendi travesia izango da, azaroaren 12an. Eta astebete beranduago, azaroaren 18an, Karakaterako Igoera.

Markinan hasiko da Euskadiko Hiru-Txirlo Bolo Txapelketa

Iruzubietako (Markina) bolatokia hasiko da Euskadiko XVII. Hiru-Txirlo Bolo Txapelketa asteburu honetan (urriak 28). Bertan, Elgoibarko hainbat bolariek parte hartuko dute eta azken aldia erakusten ari diren maila ematen badute, ziur aurre-

neko postuetan ibiliko direla. Hurrengo saioak: Mallabian (azaroak 4); Sorluzen (azaroak 11) eta Lasturren (azaroak 18) izango dira. Saio guztiak arratsaldeko 16:30ean hasiko dira. Izen ematerakoan 5 euro ordaindu beharko dituzte bolariek.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Touring 1 - Elgoibar 0 (1. erreg.)
 Elgoibar 4 - S. Tomas Lizeoa 1 (Jub.)
 Ilintxa 0 - Elgoibar 1 (Kad.)
 Elgoibar 1 - Zumaiako 4 (Neskak)
 Elgoibar 0 - Aretxabaleta 4 (Neskak)
 Elgoibar 5 - Aretxabaleta 4 (Aleb.)
 *Errifaren zozketako zenbaki sarrituak: 256 (1. zenbakia) eta 395 2. zenbakia)
 *Ardo kaxaren irabazlea: Aitzol Manterola

ESKUBALOIA

Olasa 34 - Aterpe 7 (Inf. neska)
 Hotel Txarriduna 11 - Pulpo 32 (Inf. mut.)
 Tecnomeca 19 - Askartza 21 (Kad. mut.)
 Pneumax 26 - Askartza 18 (Jub. mut.)
 Tecnifuelle 24 - Egia 22 (Sen. mut.)
 IMH 15 - Groseko 21 (Kad. neska)
 Cometel 18 - Zarautz Aiala 16 (Jub. neska)
 Basauri 18 - Lojantzi 17 (Senior. neska)
 Consulting 12 - IMH 9 (Kad. neska)

ARETO FUTBOLA

Kenci 1 - Astraburuko 2 (Euskal Liga)
 Kenci B 5 - Jostaldi Kirolak 2 (2. maila Gip.)
 MCMA 3 - Elgoibar 1 (Jub.)
 Usurbil 30 - ANTT Sofflan 23 (Senior. mut.)

ESKU PILOTA

Lagunak (Agirreb./Lazaro.) 17 - Lazkao 22 (Nag.)
 Lagunak (Ulazia/Ansola) 22 - Igeldo 3 (Nag.)
 Lagunak (Arizb/Salegi) 16 - Añorga 22 (Jub.)

[AGENDA]

ESKU PILOTA Ikastolan

Barixakua, 27
 22:15 Lagunak - Erniope (2. maila Kad.)
 Domokia, 29
 12:00 Lagunak - Umietak (2. maila Kad.)

FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 28
 13:00 Elgoibar - Ikasberri (Kad.)
 16:30 Elgoibar - Lagun-Onak (1. erreg.)

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapatua, 28
 16:00 IMH - Aloña (Kad. neska)
 17:30 Lojantzi - Zuazo (Senior. neska)
 Domokia, 29
 10:45 Aterpe - Bergara (Inf. neska)

ARETO FUTBOLA Kiroldegian

Zapatua, 28
 13:00 Elgoibar - Aloña Mendi (Jub.)

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela. egongela, sukalde, komuna, trasteroa, berogailua. Berritua. **628904891**
- ▶ Etxea salgai erdialdean. 88m². Berritua, altzariekina, ganbara. Kanpoaldera, eguzkitsua. 202.000 euro. **659 553 802**
- ▶ Etxea salgai Errosario kalean. 80m². Merke. **695783092**

ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan.
3 logela, sukalde, komuna eta egongela.
Dena kanpoaldera.
Bizitzera sartzeko prest.
943 03 38 44

- ▶ Kanpoaldera ematen duen duplex-a salgai Urasandin. Berritua. 3 logela, 2 komun eta ganbara irekia. **653 715141**

ALOKAIRUA

- ▶ Mendaron, Azpilgoeta auzoan etxebizitza alokatzen dut. 3 logela, egongela, 2 komun, garajea, trasteroa. Dena kanpora. **943 013328 (Manoli)**
650953764 (Ramon)
- ▶ Bi logela hartuko nituzke alokairuan. **943 74 88 83**
- ▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Premiazkoa. **666032715**
- ▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **620049420**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Lokal txikia alokatzen dut. 18 urte-tik gorako neskontzat. **667838858**
- ▶ Garajea alokatzen da San Roke Sean. **943 74 11 61**
- ▶ Garaje itxia salgai Jausoron. **686 22 44 38**
- ▶ Garaje itxia alokatzen da Bernardo Ezenarro kalean. Trastero eta guzti. **605775315**
- ▶ Garajea alokatzen da Santa Ana 2an, Ametsa parean. Marraduna. **61587857**
- ▶ Lokala hartuko nuke alokairuan Elgoibarko erdialdean. **627784494**

[AUTOAK]

- ▶ Kawasaki ZX6R Ninja motorra salgai. 3.600 euro. Motor berria, 8.000km. **690 857510**
- ▶ Ford Fiesta autoa salgai. Tuneatua. **664606102/617491332**
- ▶ 125cc-ko errepideko motorra salgai. Daelim Roadwin 2006. Berria, 2.000km, errebisioa pasatu berri, aseguruva 2007ko maiatzera arte. **653735849**
- ▶ Opel Corsa autoa salgai. Oso egoera onean. 900 euro. (Josu) **608394305/943743610**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Untxartak (huroiak) salgai. Merke. 100 euro. **658740788**
- ▶ Wenge koloreko mostradore eta ispilua salgai. Kutxa erregistratzailea ere bai. **Julene Poltsok**.
- ▶ Hezetasunaren kontrako aparatua hartuko genuke lokalerako. **620049420**
- ▶ Errepideko bizikleta salgai. Giant TRC Composite 1.0. 2006koa. 1.500 euro. Egoera oso onean. **618548711 (Iban)**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 ¢ eta alokairua 8 ¢. Autoak 8 ¢. Eta bestelakoak 5 ¢. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Emakumea fresadora edo egiaztagailuan lan egiteko prest. lkastaroak egin ditut IMHn. **639423493**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. **639423493**
- Mutila lanerako prest. Nagusiak zaindu... **671167050**
- Emakumea lanerako prest. **943531270**
- Emakumea garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko prest. **699609190**
- Emakumea lanerako prest. **686617930/943530130**
- Neska lanerako prest. **630706181**
- Mutila lanerako prest. **680280791**
- Neska lanerako prest 10:00eta-tik 17:00etara. **665129877**
- Emakumea garbiketa lanetarako, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Orduka. **Jackeline**
943530803/676623843

- Neska lanerako prest. **686617930/943530130**
- Ingeles klaseak ematen ditut, maila guztiak. 18 urtetik gorakoentzat, one to one, profidency. **606733850**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. **943 742201**
- Neska eskaintzen da goizez etxe eta portalak garbitzeko. **943 742827**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean. **660511781 (Elena)**
- Emakumea orduka nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. **647100572**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **943033809/696136780**
- LH eta DBHko klase partikularak ematen dira. **943 53 10 54**

ESKAINITZA

- Kamareroa behar da. **943254366**

- Kamareroa behar da. Esperientziaduna. Kontratua eskaintzen da. **615723480**
- Mekanikaria behar da muntaia lanetarako. **699014349**
- Elgoibarko kafetegia baterako neska behar da. Astelehen-ostiral, 12:30etik 15:30era. **943741416 (9:00-16:00)**
- Kamareroak behar dira asteburuetan martxa taberna batean lan egiteko. **678158015**
- Jubilatuentzako taberman lan egiteko kamareroak behar dira. Jardunaldi erdia, adinak ez du axola. **678158015**
- Mendaroko kafetegirako sukaldaria behar da. **943030150**
- Asteburuetarako kamareroa behar da. **943030150**
- 1. edo 2. mailako ofizial soldatzailea eta muntatzailea behar da. **699537598**
- Plegatzailea behar da. Planoen ezagupenarekin. **699537598**
- Tituludun erizainak behar dira Elgoibarrerako. **609318192/943466150**

- Ume batentzat frantses irakaslea behar da. **647707081**

ABISUAK

- 1942an jaiotako bazkaria azaroaren 11n Sigma jatetxean. Interesatuak azaroak 9a baino lehen sartu beharko dituzte 40 euro Euskadiko Kutxako kontu honetan: **0071038221**
- Urrezko hartz txiki bat galdu nuen urriaren 17an. Balore sentimentalak dauka. **628564011**
- Iriondo Kirolak dendan bakero-dun kazadora bat utzi du norbaitek. **943740956**
- San Migel auzoko elizan betaurreko batzuk aurkitu dira. **943743109**
- Txakurkumeak oparitzen dira. Arizai txakur eta arizai alemaniar nahasketak. **635008496**
- "Rifen sarean" resin jabearekin kontaktuan jarri nahiko genuke. **676402851 (Manterola)**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Imanol!**
Urriaren 21ean, 7 urte bete zenituelako. Muxu haundi bat etxeko guztien eta Jone eta Noraren partez.



▶ Zorionak **Aitana!**
Gaur, bi urteko bete dituzulako. Familiaren partez.



▶ Zorionak **Irenel!**
Gaur, 8 urte bete dituzulako. Muxu haundi bat familiaren, Unairen eta Claudiaren partez.



▶ Zorionak **Janirel!**
Gaur, urte bat egin duzulako. Muxu haundi haundi bat etxekoen partez.



▶ Zorionak **Aitor!**
Bihar, 9 urte beteko dituzulako. Familiakoen partez, ondo pasa eguna.



▶ Zorionak **Andoni!**
Ilgandean, 12 urte beteko dituzulako. Familia guztien eta bereziki, Larenen partez.



▶ Zorionak **txapeldun!**
Bihar, 8 urte beteko dituzu eta. Jonen partez muxu haundi bat.



▶ Zorionak **Nereal!**
Hilaren 30ean, urte bat beteko duzulako. Familia guztia, anaia Mikelen eta Ceciren partez.



▶ Zorionak **Joni!**
Datorren astelehenean, 9 urte beteko dituzulako. Muxu haundi bat etxekoen partez.



▶ Zorionak **Saral!**
Aitxixa eta Loliren partez, muxu haundi bat.



▶ Zorionak **Malen eta Eider!** Zuen urtebetetze egunean, urte bat eta 4 urte beteko dituzuelako. Muxu haundi eta potolo bat etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Paul eta Danel!**
Zuen urtebetetze egunean, 5 eta 8 urte beteko dituzuelako. Familia eta lagunen partez.



▶ Zorionak **Jose eta Marial!**
Larunbat honetan, ezkonduko zaretelako. Familiaren partez, ondo pasa eguna.



▶ Ezetz asmatu nor den ama eta nor alaba?
Zorionak **bio!** Condetarren partetik.

▶ Zorionak **Joni!**
Astelehenean zure eguna delako. Muxu bat etxekoen partez.



JOSE pintarak
(Txema)

Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel.: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14



Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

[OKINDEGIA]



29 igandea FOTERO



[FARMAZIAK]

- 27 GUARDIA 24 ORDUZ
- 28 Fernandez
- 28 Zabaleta
- 29 Yudego
- 30 Zabaleta
- 31 Etxeberria (Errosario)
- 1 Bidasolo
- 2 Bidasolo
- 3 Etxeberria (Santa Ana)

* Beti dago guardiako farmazia
Eibar/Emua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK

IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



ELGOIBAR - DONOSTIA (IRAILA)

Astegunak: 7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 15:40, 18:45, 20:00, 20:45
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 18:45, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00, 20:45
PESA: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR (IRAILA)

Astegunak: 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA


Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 22:15.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.
EUSKOTREN: 902 543 210

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR


Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 902 543 210

Ordu aldaketa larunbatean

Ordu aldaketa egin beharko da, bihar, larunbatetik igandera bitarteko gauetan. Urriaren 29an, beraz, ordubete atzeratuko ditugu erlojuak. Honela, goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira.



3:00



2:00

Malape taberna
Orain astegunetan

San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilon, 2 3.sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

EL KANOSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
MULTIKOPISTAK
FOTOKOPIADORAK
PLANOEN BIRREGILEAK
ERLOJU INDUSTRIALAK
MARRAZKETA MATERIALA
INFORMATIKA
FAX

URKIDI
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

[27 BARIXAKUA]

19:30 ISIDRO LARRAÑAGA AKORDEOI ORKESTRA
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Antolatzailea: Kokoe Komiki
Elkartea

20:00 ETXERAT-EN ENKARTELADA
Plaza Handian

[28 ZAPATUA]

11:00 AZPEITIKO TREN MUSEORA IRTEERA
Irteera: Plaza handitik
Antolatzailea: Atxutxiamaiika
LH 3ko eta 4ko ikasleentzat

11:00 BERT-ENTZAKO MEZU BILKETA
Plaza Handian

19:00 "HITZAK EGITEN GAITU EZER" ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA
Bertsogintzari buruzko erakusketa
Kultur Etxeko erakusketa gelan

[29 DOMEKIA]

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA
Herriko Antzokian
Zuzendaria: Jose Antonio Osoro
Egitaraua: "La Puerta grande" (E. Checa); "Quinta Sinfonia" (Beethoven); "En el jardín de un monasterio" (A. Ketelbey); "Herb Alpert Selection N° 1" (Coleman) eta "All American Suite" (R. Mac Ray).

[1 EGUAZTENA]

19:00 ENKARTELADA
Femando Bert-en alde
Plaza Handian

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN
«La Sombra de la sospecha»
27, barixakua: 22:15
28, zapatua: 19:30-22:15
29, domekia: 19:30-22:15
30, astelehena: 21:30
"Garfield 2"
29, domekia: 16:30
"Kutsidazu Bidea Ixabel"
1, eguaztena: 19:30
«La isla de Hierro» (Z.K.)

EIBAR, UNZAGA
«El Laberinto del Fauno»
27, barixakua: 19:30-22:15
28, zapatua: 17:00-19:30-22:15
29, domekia: 17:00-19:30-22:15
30, astelehena: 19:30-22:15
31, martitena: 19:30-22:15
1, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO
«Salvador»
27, barixakua: 19:30-22:15
28, zapatua: 19:30-22:15
29, domekia: 19:30-22:15
30, astelehena: 19:30-22:15
31, martitena: 19:30-22:15
1, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«la Sombra de la sospecha»



Zuzendaria: Clark Johnson.
Antzezleak: Michael Douglas, Kiefer Sutherland, Eva Longoria.
Ameriketako Estatu Batuetako isilpeko agentea da Pete Garrison. Duela 20 urte presidentearen bizitza salbatu zuen eta ekintza hartatik lankide eta lagunek mirestua eta errespetatua da. Orain presidentearen emazte ederrarentzat (Kim Basinger) lan egiten du. Itxuraz dena ondo doakio Garrison leialari, baina bera eta Lehen Damaren artean amodiozko istorioren bat egon daitekeen zurrumurruak ez diote batere onik egingo.

«La isla de Hierro» (Z.K.)

Zuzendaria: Mohammad Rasoulof.
Antzezleak: Ali Nasirian, Hossein Farzi-Zadeh, Neda Pakdaman.
Iran hegoaldeko kostaldean, etxerik ez daukan pertsona pobre talde batek abandonatutako itsasontzi zahar bat hartu du etxetzat. Nemat kapitaina da guztien buru. Agintari eta jabeek itsasontzia eraman ez dezaten esfortzu handiak egin behar harko diu, baina jabearen asmoak bestelakoak dira. Poliki-poliki saldu nahi du itsasontzia, zatika txatarrarako salduz. Horrela jarraituz gero, laster hondoratuko da, baina beraiek ez dakite.

Atzera hegira



1963. urteko abuztuaren 30ean ateratako argazkia da honakoa. **Camelia Vazquez**-ek laga digu. Anita barbas eta Gerardo Garcianen ezkontza egunean aterata dago San Bartolome parrokiaren atarian. Biak Elgoibatarren bizi eta ezagutu ziren arren, andregaiia Malagako zen izatez eta senargaia, berriz, Galiziakoa. Egun, Malagan bizi dira biak. Argazkian ezkonduen senitartekoa ageri dira eta azaldu digutenez, Barrutia jatekxan egin zuten banketea. Gaur egun taxi geltokia dagoen inguruan egon zen garai batean jatekxe ezagun hau. Ikus dezagun zein diren argazkian ageri direnak: Ezkerretik eskumara: **Roberto Iriarte**, **Loli Bernal**, **Lorenzo Barbas** (), **Agustina Chamorro** (), **Camelia Vazquez** eta **Jose Bernal** ().



ESKERTZA

2006ko urriaren 25ean hil zen
Matilde Azkaitia Irioren sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Arrate Garate

*Erraza izan zen zu maitatzea
ezinezkoa izango da zu ahaztea.
Beti gurekin izango zara.*

IV. URTEURRENA

Urteurreneko meza izango da, larunbatean, urriak 28,
arratsaldeko 19:00etan parrokiari.



Etxekoak

hitzak egin gaitu ezer bertso erakusketa

urriaren 28tik
azaroaren 12ra

ordutegia:

Astelehenek leunbata: 19:00-21:00
Je egunek: 12:00-14:00

Elgoibar
Kultur Etxea
Erakusketa



Babeslea:



Antolatzailea:



Elgoibarko
Udala
Euskara Zerbitzua

Lurorotako automobil familiarretan

70 urtetako esperientzia

edukitzea ez da kasualitatea.
Chevrolet Captiva berria
Begirada guztien zentrua.
Europarentzat bereziki egina.
5 eta 7 eserlekurekin.
Diesel 150 CV.
Gasolina motorra
136 CV eta 230 CV.
Captiva Gama
23.330 €-tik hasita.



• Diesel 150 CV 4x4 29790€-tik hasita

3 URTEKO garantia
edo 100000 Km.

Chevrolet Captiva

Giauto 902 345 225

Otaola Etorbidea, 27 · EIBAR · Tel.: 943 70 08 41
Karobi Industrialdea z/g · OLABERRIA · Tel. 943 88 51 50
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es

Chevrolet gehiago da.



CHEVROLET

Prezio gomerakeluz Penintulatu eta Beldur Uhartetolan. Captiva 2.4 LS eta Captiva 2.0 VCDi LT 5 eserlekurekin (BEZ, matrakulu zerga, geroztu eta Prover Plano Gasolina berre). Hiltabete: bukatu arn. Kontsumo nitroto (l/100 Km): 7.4-11.5. CO₂ igorpena (g/Km): 197-264. 3 urteko bermen edo 100000 Km. Bermaen legian (23/2000) kalterik izan gabe.



Komunerako altzariak eta osagarriak



Hidromasajezko kabinak eta bainerak



Lorezaintza eta ferreteria saila



Biltegia



Zeramikak



Anchústegui



Sanyfer S.L.



Olaso Industrialdea • Olasope, 5 • Tel.: 943 74 33 44 • 943 74 06 92

Faxa: 943 74 37 11 • Almazena: 943 74 20 38 • 943 74 23 71

E-posta: comercial@anchustegui.com

E-posta: sanyfer@anchustegui.com